

Negu elurtsua aurtengoa, eskiatzera joateko modukoa

2009/03/24

Negua amaitzear dagoen honetan gehienok aseta ditugu jada eskiatzeak sortzen dizkigun gogoak eta unibertsitate honen kide askok ere berdin egin dute. Aurtengo ikasturterako sei irteera antolatu dira Kirol Zerbitzutik, hiru St Laryra, bi Baqueira-Bereitera eta azkena, aste santuan, Alpeetara. Guztira, 150 pertsonak baino gehiagok aprobetxatuko dute Kirol Zerbitzuak eskaintzen duen aukera hau eta orain arte joan diren guztiak oso gustura bueltatu dira.

Otsailean Baqueira-Bereitera eskiatzera joateko bi irteera egitekoak ziren baina parte hartze eskasa zela medio, bertan behera gelditu ziren. Agian, hurrengo urtera begira ongi aztertu beharko da ea merezi duen estazio honetara joatea, gehienbat garai hauetarako duen gastua ikusita, bai bezeroentzat eta baita Kirol Zerbitzuarentzat ere.

Bestalde, Biteri Ikastetxe Nagusiarekin elkarlanean, Goi Eskola Politeknikoko lehenengo mailako ikasleei zuzenduta St Laryra irteera bat egin zen eta bertara 40 ikasle animatu ziren. Lehenengo aldia da aste barruan hiru eguneko irteera bat egiten dela baina izan zuen arrakasta ikusirik errepikatzeke modukoa dela uste dugu.

Hurrengo eski irteera estazio berera izan zen baina martxoaren lehenengo asteburuan. Honetara 46 pertsona animatu ziren Mondragon Unibertsitateko langileak, ikasleak eta hauen unibertsitatetik kanpoko lagunak bitarteko. Elurra eta eguraldia oso ona izan zuten. Hori da hori zortea!

Aste bete beranduago, hau da, martxoaren bigarren asteburuan, berriz ere irteera berdina egin zen eta partaide guztiak ikasleak eta beraien lagunak izan ziren. Egia esan, autobusa erdi hutsik joan zen, guztira 20 pertsona, baina asteburu egokia aukeratu zutela ere esan behar da. Eguzkia behintzat ez zuten faltan bota.

Azkenik, apirilaren 10ean egingo den eski irteera izango da unibertsitateak antolaturiko aurtengo azkena, baina baita dotoreena ere. Alpeetara joango dira izena eman duten 40 pertsonak eta eski estazioa ere ezin hobea izango dute, Meribell 3 valles alegia. Bueltan kontaktuko digute nola ibili diren.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi aurtengo berrikuntza bezala asteburuetako irteerak larunbat goizean irten beharrean ostiral arratsaldean abiatzea proposatu dugula eta erosotasunari begira gutxienez, alde ederra dago. Larunbata goizean goizetik aprobetxatzen da eta ostiral gaua bertan pasatzeak atsedena hartzen asko laguntzen du. Beraz, Kirol Zerbitzutik balorazio positiboa egiten diogu aurtengo eski irteerei.

Datorren urtean gehiago eta hobeto!



St Lary eski estazioan free stile txapelketa